

## **Irakurzaletasuna, sukaldaritza eta eskegitzeko libretak egiteko ekimenak astegun hauetan Laudion**

**Euskaraz bizitzeko ekintzaz beteriko egunak izango dituzte audioarrek aste honetan. Larunbatero bezala Sorgin Zapatuak ekimenari esker egingo diren ekintzak alde batera utziak, honako hauek dira aste honetan, apirilaren 17, 18 eta 19an, euskara praktikatzeko eskura izango diren kontuak.**

Umeen artean irakurzaletasuna pizteko "Bularretik mintzora" egitasmo zabalaren barruan, herriko irakasleentzako (30-40 lagun) formazio-jarraipen saioa, urteko bigarrena eta azkena. Liburutegian, 14:00-16:00 orduategian.

Irakasle horiek guztiak era boluntarioan ari dira parte hartzen eta, ikus daitekeenez, lan orduategitik kanpoko orduetan. Udalerriko bost ikastetxeetako irakasleak daude egitasmo arrakastatsu honetan inplikatuak.

Apirilak 18, osteguna - 19:30ean. Sukaldaritza saioa Gastronomía Museoan. Paratuko den platera bertan dastatuko da. Ezinbestekoa da izen emanda egotea: 607 673 744. Euskaraz praktikatzeko eta bizitzeko Berbalagun egitasmoko lagunek antolatua.

Apirilak 19, ostirala - 17:30-19:30. Kultura Etxean. Zintzilikatze libreta bat egiteko eskulan saioa, guraso eta umeei zuzendua. Ezinbestekoa da izen emanda egotea: 607 673 744. Euskaraz praktikatzeko eta bizitzeko Berbalagun egitasmoaren Gurasolagun atalaren barruko ekimena. Tailerraren ardura, Kirikiño elkarteak.

### **Sorgin Zapatuak**

Datorren larunbatean, apirilaren 20an, euskararen sorginak bisita egingo die Laudioko umeei (5-12 urte), UGARTE auzoan dauden eliza-lokaletan. Argiz beteriko zakua ekarriko du sorginak, ikusiko duzuenek. Ohi bezala, 17:30-19:30 orduategian eta doan.

Pegatina luminiszentek egiteko tailerra prestatu dute Arimakoei. Jarraian, askari gozoa emango zaie hara bertaratuko diren ume guztiei.